



Hezkuntza sailburuordearen 2019ko otsailaren 4ko EBAZPENA. Horren bidez aldatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2018/2019 ikasturtean zehar oinarrizko kompetentzien diagnostikoa ebaluatzeko prozesuan aurrez ikusitako probak egiteko hainbat jarraibide.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egindako ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duenak, definitzen ditu ebaluazio diagnostikoaren helburua, aplikazio eremua, xedea, edukia, haren parte diren ebaluazio-prozesua eta hobekuntza-prozesua.

Ebaluazio diagnostikoko probak funts publikoak dituzten ikastetxe guztietan aplikatuko dira, 2015eko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuko 54. artikulua xedatutakoa betez; horren bidez Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak xedatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri da.

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeentzat prestakuntzarako eta orientazio gisa balio du eta familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat informazioa eskaintzen du. Datu zorrotz eta fidagarriak oinarri hartuta, hezkuntza arloko jardunbideari eta ikastetxeko hezkuntza arloko plangintzaren inguruan erabakiak hartzeari buruzko hausnarketa bultzatu nahi du hobekuntzarako Esku-hartze Plana aplikatuta emaitzak hobetzen laguntzeko.

2018-2019 ikasturteko Ebaluazioaren Diagnostikoak bi aplikazio ditu:

- Errola-ebaluazioa etaparen erdian (Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan).
- Ikasleen irteera-profilaren ebaluazio-probak pilotatzea, etaparen amaieran (Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan), ikastetxeen lagin batean (etapa bakoitzean 40 ikastetxetako 80 talde).

Ikasleei diagnostikorako probak aplikatzeko, aplikazio-prozedura zehatza eta kontrolatua behar da, eskuratuko diren emaitzetan zorrotasun maila handia bermatu ahal izateko.

Horrekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan diagnostikoaren ebaluazio-prozesuak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 6.1 artikulua aurrez ikusten du Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpen bidez ezarriko dela ikasturte bakoitzerako proben aplikazioa egingo den aldi zehatza eta horien iraupena. Halaber, Agindu horretako Azken Xedapenetako Lehenengoak eskumena ematen dio Hezkuntza Sailburuordetzari bertan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hezkuntza sailburuordearen 2018ko azaroaren 14ko EBAZPENAK zehaztu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2018/2019 ikasturtean zehar oinarrizko kompetentzien diagnostikoa ebaluatzeko prozesuan aurrez ikusitako probak egiteko jarraibideak.

Egin beharreko ebaluazio probak aplikatzeko lehiaketaren prozedura inori esleipenik egin gabe amaitu denez beste lehiaketa berri bati ekin zaio Hezkuntza sailburuordearen 2018ko azaroaren 14ko EBAZPENean jasotako hainbat baldintza aldatuz.

Beraz, 2018-2019 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrizko kompetentzien ebaluazio diagnostikoko probak egiteko hainbat jarraibide aldatzeari ekin dio. Horretarako:



XEDATU DUT:

1) 2018-2019 ikasturtean, **etaparen erdian** egingo diren probak aplikatzeko aldia honako hau izango da:

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak: 2019ko maiatzaren 6tik maiatzaren 31ra.
- DBHko 2. mailako ikasleak: 2019ko maiatzaren 6tik maiatzaren 31ra.
- Aplikazioan sor daitezkeen ezohiko edo ustekabeko egoerak konpontzeko, aurreko puntuetan adierazitako aplikazio-aldiak egun batzuez luza daitezke.

2) 2018-2019 ikasturtean, **etaparen amaieran** egingo diren ebaluazio probak probak aplikatzeko aldia 2019ko martxoaren 25etik apirilaren 5era izango da.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 4an

Maite Alonso Arana

Hezkuntza sailburordea



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN